



STEE-EILASek BERE DESADOSTASUNA AGERTZEN DU BIGARREN HEZKUNTZAKO OPOSIZIO DEIALDI HONEKIN

Atzoko mahai sektoriala akordiorik gabe amaitu zen eta Hezkuntza Sailak Bigarren Hezkuntzako LEP hemendik gutxira, azaroan, aterako duela adierazi zuen. **BEHIN BETIKO** deialdia, lanpostu kopurua eta aterako diren espezialitateen berri eman zigun.

LANPOSTUAK: Honako hauek dira aterako dituzten plaza kopurua eta espezialitateak.

	1HE	2HE	GUZT
GAZTELERA		32	32
GEOGRAFIA ETA HISTORIA		70	70
MATEMATIKA		20	20
FÍSICA ETA KIMIKA		24	24
BIOL-GEO		18	18
INGELES		63	63
GORPUTZ HEZIKETA		28	28
SIKOL-PEDAGO		24	24
TEKNOLO		45	45
EUSKARA		60	60
INFORMATIKA		25	25
ERAIK. ZIB. ETXEG.	6	3	9
ESKUARTZE SOZIOK	2	8	10
IBILGA.MA.ANT.PRO.	4	5	9
ANT.FAB.MEK.PRO.	2	14	16
ANT.ENERG-SIST.PR.	7	5	12
OSASUN PROZESUAK	4	5	9
SIST.ELEKTRT.AUT.		15	15

	1HE	2HE	GUZT
SUKALD. PASTELG.	9	3	12
EK.TER.FL.INS.MAN	7	7	14
INSTAL. ELEKTRO.	4	12	16
OSASUN LAG.PROZ.	7	9	16
GIZARTE ZERBITZUAK	3	10	13
SOLDADURA	5	4	9
HEO INGELESA		19	19
HEO FRANTSESA	2	10	12
HEO EUSKARA		14	14
GUZTIRA	62	552	614

Gure sindikatuak bere desadostasuna adierazi zuen bileran bertan, bai eskainitako lanpostu kopuruan (614) baita beraiei dagozkien hizkuntza eskakizunetan ere: %10 HE1ekoa eta %90 HE2koa .

Deialdi honek ez dio irakasle interinoen egonkortasunaren arazoari erantzunik ematen ezta hezkuntza sistemaren euskalduntzeari. Hezkuntza sistemak irakasle elebidunak behar ditu.

Argi dago plaza kopurua 550tik 614ra igotzea begi onez ikusten dugula, honek Hezkuntza Sailak eta CCOOK sinatutakoa hobetzen duelako baina oraindik gutxiegi direla deritzogu. **STEE-EILASek gutxienez 1000 plaza ateratzeko eskaria egin zuen Egonkortasun Konpromezua mantenduz.** Kontuan hartu behar da ere espezialitate asko ez direla ateratzen.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO GURE EGOITZEKIN HARREMANETAN IPINI